III. ERANSKINA

HAUTATUTAKO PROIEKTUAREN FITXA TEKNIKOA (PUBLIZITATEA EMATEKO)

LAGUNTZA MODALITATEA	DOKTORATU AURREKO LANGILE IKERTZAILE. “IKERTALENT 2026”
PROIEKTUAREN KODEA	P5
TITULUA	HELBURU ANITZEKO IBILBIDE EGOKITZAILEEN PLANGINTZA URPEKO IBILGAILU AUTONOMOEN BIDEZ, KANPAINA OZEANOGRAFIKO ETA ARRANTZA-KANPAINEN OPTIMIZAZIORAKO
ZENTROA	AZTI SUKARRIETA (PASAIAN EGITEA ERE BALORA DAITEKE)
SAILA/ZUZENDARITZA/ARLOA	ITSAS IKERKETA
IKERKETA - TALDEA	KOSTALDEKO INGENIARITZA ETA OZEANOGRAFIA OPERAZIONALA ETA ARRANTZA TEKNOLOGIA JASANGARRIAK
PROIEKTUKO TUTOREA(K)	IKERBASQUE KATEDRADUNA JAIME VALLS MIRÓ DOKTOREA ETA ANNA RUBIO DOKTOREA
PROIEKTUAREN LABURPENA	PROIEKTUAREN HELBURUA DA METODOLOGIA AURRERATUAK GARATZEA KANPAINA OZEANOGRAFIKOAK OPTIMIZATZEKO, URPEKO IBILGAILU AUTONOMOAK (AUV, INGELESEZKO SIGLEN ARABERA) ERABILIZ. ZEHAZKI, GLIDERRAK EDO URPEKO PLANEAGAILU AUTONOMOAK BALIATUKO DIRA PLANEAGAILUEN BIDEZ EGINDAKO BEHAKETEN ENERGIA-ERAGINKORTASUNA, EGOKITZEKO GAITASUNA ETA INPAKTU ZIENTIFIKOA HOBETZEKO. ERA BEREAN, AZTERTUKO DA HAIEN ELKARRERAGINA GAINAZALEKO ROBOT AUTONOMO OSAGARRIEKIN (USV, INGELESEZKO SIGLEN ARABERA). ROBOT HORIEK MODU AUTONOMOAN JARDUTEN DUTE, ALDEZ AURRETIK PROGRAMATUTAKO IBILBIDEEI JARRAITUZ. HALA ERE, BIDEAN AURKITZEN DITUZTEN BALDINTZA OZEANOGRAFIKO ALDAKORRETARA DENBORA ERREALEAN EGOKITU BEHAR DITUZTE IBILBIDE HORIEK. GARATUKO DIREN PLANTEAMENDUEK AUKERA EMAN BEHARKO DUTE BEHAKETA-ESTRATEGIA EGOKITZEKO PROZESU OZEANIKOEN DENBORAZKO DINAMIKARA ETA NEURTUTAKO ALDAGAIETARA, BESTEAK BESTE, AZKAR EBOLUZIONATZEN DUTEN KOSTALDEKO GERTAERETAN LAGINKETA EGITEKO KASUETAN. AZKENIK, GLIDERREN INTEGRAZIOA AZTERTUKO DA OHIKO KANPAINA OZEANOGRAFIKO ETA ARRANTZA-KANPAINETAN, ONTZIETATIK EGITEN DIREN LAGINKETAK OSATZEKO, BEHAKETEN ESTALDURA ESPAZIAL ETA DENBORAZKOA ZABALTZEKO, ETA KOSTU OPERATIBOAK NAHIZ INGURUMEN-INPAKTUA MURRIZTEKO.
BESTELAKO INFORMAZIOA	ONARTZEN DIREN TITULUAK: MEKATRONIKAKO, INFORMATIKAKO, INGENIARITZA ELEKTRIKOKO, INDUSTRIA INGENIARITZAKO, FISIKAKO, TELEKOMUNIKAZIOETAKO EDO ANTZEKO ARLOETAKO UNIBERTSITATE-TITULUA. OSO POSITIBOKI BALORATUKO DIRA HONAKO EZAGUTZA ETA ESPERIENTZIA HAUEK: ROBOTIKAREN ALORREKO EZAGUTZAK,N SENTSORIKA, INTERFAZEAK ETA SISTEMA TXERTATUAK (EMBEDDED SYSTEMS), SISTEMEN PROGRAMAZIOA (PYTHON, C++), PROGRAMAZIO ZIENTIFIKORAKO ETA SIMULAZIORAKO LENGOAIAK (ADIBIDEZ, MATLAB), ROS INGURUNEAREKIN LAN EGITEKO EZAGUTZAK, IKASKETA AUTOMATIKOA (MACHINE LEARNING), BEREZIKI PYTORCH ETA TENSORFLOW TRESNEKIN, KODE IREKIKO (OPEN SOURCE) GARAPEN-INGURUNEETAN ESPERIENTZIA.

	HALABER, BEREZIKI AINTZAT HARTUKO DIRA HAUTAGAIAK AURRETIK EGINDAKO GARAPENAK EDO ESPERIENTZIAK OZEANOGRAFIAREKIN, ITSAS ZIENTZIEKIN, INGURUMEN ZIENTZIEKIN EDO ANTZEKO BESTE DIZIPLINA BATZUEKIN LOTUTAKO INGURUNEETAN.
HARREMANETARAKO DATUAK	JVALLS@AZTI.ES / ARUBIO@AZTI.ES